

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1311

81/2022 EBAZPENA, martxoaren 4koa, Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Juan Manuel Jiménez Lerma jauna izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Arabako Osasun Mentaleko Sareko Salburuko Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearen azaroaren 15eko 248/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Arabako Osasun Mentaleko Sareko Salburuko Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehia-keta-sistema bidez (2022ko urtarrilaren 10eko EHAA 5. zk. eta 2022ko urtarrilaren 15eko BOE 13. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Juan Manuel Jiménez Lerma jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Arabako Osasun Mentaleko Sareko Salburuko Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Juan Manuel Jiménez Lerma jauna izendatzea Osakidetzako Arabako Osasun Mentaleko Sareko Salburuko Osasun Mentaleko Zentroko Atal Sanitarioko Buru aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022ko apirilaren 1a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Arabako Osasun Mentaleko Sareari Ebazpen honen berri ematea.

2022ko martxoaren 21a, astelehena

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osa-
kidezako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo
egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 4a.

Arabako Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,
MIREN EGUZKIÑE DE MIGUEL AGUIRRE.